

TELESFORO MONZON-EN OLERKIA

Enrike Jaio

Euskara Irakaslea

Monzon ezagun badugu, politikagintzak eta antzerkigintzak eman izan dioten sonagatik izan da, halaber ezin ahaztu gure Euskal Herriko historiaren zubitzat jo dezakegula, gerraurreko eta gerrosteko pasarteak gaurdaino lotu izan bait ditu, horrela ezinbestean erreferentzigune bihurtu izan zen.

Bakartasun olerkia gerrosteko bere atzerriratzearekin batera aztertu beharra dugu. Garai hartako euskal kulturaren ezintasunean eta iluntasunean ezezagun egiten zaigu Monzon, gutxi irakurria eta gutxiago kritikatu izan zelako, hori dela eta lantxo honekin ezagutarazi nahi izan dut aldi hartako olerkigilea, geroago zenbait herri kantarekin bere ena eta maila erakutsi arren.

Bakartasun...!

Bakartasun...! Aspaldi naukak ire minez;
iskanbilla bizian, gogo lantzerik ez.
Ator. Guziak biok Ixiltasun´gana,
ba-diat ene baitan irurontzat lana.

Uxaitzak inguruko gezur, ixiltasun...!
Egia behar diat artu nere lagun.
Ator Egi, lepotik zintzilizka atxurra,
yorratzen asi adi nere barne-lurra.

Eraintzak ene baitan maitasun azia;
emaitzetan ederren, etsai-barkatzia.
Nere barne-baratzan, datorrela gora
bake-zugaitz azpian, alaitasun-lora.

Ta asi gaitez abesten Euskalerra´ri,
gure gogo biurtuz bera bezin garbi.
Gorrotua ta illuna doiazela igesi...
Gure basoetan ez txori oiek abi.

Maitasun batek egin niñun bidez kari
ta maitasun orretzek biur bertsolari.
Euskalerra´ko oroitza neramala bizi,
oartu izan nitzan bein ... negola kantari...!

1.- Monzon Olaso'tar Telespor

Bergaran jaio zen 1904-12-1ean. Bere herrian eta abarretan, osotu zizki-gun bere ikasketak. Bergarako udaleko zinegotzi, Gipuzkoako Buru Batzarreko buru, Euskadi-Buru-Batzarrekoa eta Gipuzkoatik Gorteetan diputatu, Eusko Alderdi Jeltzaleak hautatua.

Gudaldian, 1936-1937an, Eusko Gobernuan parte hartu zuen, Jaurzain-goko Buru izanik. Bilbo erori zenean, Santoñatik erbestera ihes egin behar izan zuen Hegoamerikara, Mexikora. Ondoren, Lapurdira aldatuta Donibane Lohitzunen bizi izan zen. Iparraldean "Anai-Artea" elkarte sortu zuen P. Larzabalekin batera frankismoaren urte gogorretan Hegoaldeko erbesteratuei babesa eta laguntza emateko.

Euskal kulturari buruzko erakunde eta arazoetan sartuta egon zen batez ere, "Euskaltzaleen Biltzarra" delakoan, "Euskal Kulturaren Alde", Eusko-Jakintza" elkartean eta Baionako "Gure Herria" aldizkarian lan eginik, buru, idazle eta aholkulari bezala.

Euskaltzaindikoa zen, bestalde.

Franko hil ondoren Hegoaldera itzuli zen eta egoera politiko berrian murgildu zen erabat Herri Batasunako buruetariko bat izanik hil arte.

1981.ean hil zen Bergaran, politikagintzan eta euskalgintzan murgildurik zebilelarik.

2. Monzon idazlea: haren idazlanak

1. *Olerkari*: herri bat zuen maite, bere sorterrria, Euskal Herria eta honi idazten dio.

1.1. *Urrundik* (Mexiko, 1945)

Bi bertso-idatzi opa ditu: "Bake-Oroi" eta "Guda-Oroi".

"Bake-oroi"

Euskaraz eta erdaraz dago. Kerman Maria Iñurrategi tolosarrak egin dio itzulpena. Euskal Herriarekiko penaz, oroitzapenez egina.

"Guda-oroi"

Euskal Herriaren alde borrokatu eta bizia eman zuten gudarien goraipamenez egina.

1.2. *Gudarien egiñak* (Donibane Lohitzune, 1947). Goian aipatuaren bigarren zatia, azken gerrateko gudari eta ingurukoen gertakari eta eginak dakartzaten poema aberkoiak. Herriak kantatzeko osatuak.

Gerrako gudariei eskainitako gorazarrea dugu *"Gudarien egiñak"*.

2. *Antzerkigile*: Ondu dizkigun zortzi-bederatzi antzerkiak ere oso aipatuak izan dira. Lurrin olerkitsuz girotzen dizkigu gehienbat, lan honek ere, eta honek ziur asko aparteko goxotasuna eransten die zinez.

Hona, hemen:

2.1. Lau kantari eta xori bat (Baiona, 1956)

2.2. Menditarrak (Baiona, 1957)

- 2.3. Harpeko bazkarioa (Baiona, 1957)
- 2.4. Zurgin zaharra
- 2.5. Ur garbi
- 2.6. Behorraren ostikoa
- 2.7. Gure behia hila da (Baiona, 1960)
- 2.8. Hazparneko anderea (Baiona, 1960)
- 2.9. Eneko Bizkai eta Mari Lorka (1966)

3. Haren garaiko giroa

Gerraondoko poemagintzaren lerro nagusiak markatzea bada ere, gerraurreko poemagintzaren inguruan sortutako giroa aipatu nahi nuke lehenik, eta hori arrazoi batengatik: zaila bait deritzot gerraondokoei ekiteari aurrekoek markatu zuten eskola nolabait ikusi gabe, azken finean haiek eskola honen herederoak bait dira hein handi batetan.

Gerraurretik, eta poesiara mugatuta noski, halako eufori giro bat nabari zen Euskal Herrian. Urtean behin ospatzen ziren "Olerti Egunak" delakoak, kritiko edo komentaristaren papera egiten zutenak ere baziren -Aitzol, Jautarkol, Orixe-, eta horren fruitu gisa edo, bazirudien euskal poesia inoiz jasan gabeko igoaldia ari zela bizitzen: Lizardi gailur goren bezala eta beste poeta batzu haren itzalpean.

Bestalde, giro politikoari dagokionez, irakiten zegoen abertzaletasuna, eta harekin batera euskaltzaletasuna. Autonomi Estatutu baten ateak zabaltzea, eferbeszentzia politiko harekin batera, euskal poesia ere gori-gori zebilen.

Beste poeta bat kaleratu zen Bizkai aldean 1930 urtean, "Lauaxeta" izengoitiz.

Gerra Zibila piztu zen eta nazionalen fusilek paretaren kontra estutu zituzten Aitzol eta Lauaxetaren gorpuak. Lizardi eta Loramendi ospetsuak hilak ziren gerra baino hiru urte lehenago. Bizirik iraun zuen bakarrenetako bat Orixe izan zen.

1936.eko Gerra Zibila pasata, Euskadiren proiektua pikutara joan zen. Esperantzarako ez zegoen aukerarik.

Gerra bukatu ondorengo poesia-ekin ere antzeko fenomeno bat gertatu zen. Gerra ondoren gauzak aldatu egin ziren, Gerraren ondorenak gogorrak izan ziren euskal literaturarentzat. Gerra aurretik sortu ziren esperantzak lur jota geratu ziren. Idazle asko hil nahiz erbesteraturik zeuden, eta hemen geratu zirenek ezin zuten ezer egin.

Hala ere, desmoralizazio-momentu hartan, idazle batzuk, etsipena gainditu eta lanari ekin zioten, aurrean zituzten zailtasunei aurpegi emanez.

Oro har, literatura hau, tematikaz eta moldez gerra aurrekoaren jarraipena da. Lizardi, Orixe eta Lauaxetaren eragina nabari da. Gerra aurrean ohi ziren gaietara mugatzen da. Goi-mailakoa ez bada ere, garrantzizkoa da behintzat, orduan beharrezkoena zen gauza eman zuelako: segida. Gehiena poemagintzara mugatu zen, eta ia zabalkunderik ez zuten liburu eta aldizkarietan dago barreiatuta. Hemen,

bereziki ateratzen zuen Jokin Zaitetik ahaztu ezinezkoak ditugu: gerra aurreko idazleei idazteko aukera eman ez ezik, geroko belaunaldi berriari ateak irekiz idazle berriak sortu zituelako.

Olerkaririk aipagarrienak:

- Salvatore Mitxelena
- Xabier Diharce "Iratzeder"
- Telesforo Monzon
- Jokin Zaitegi
- Santiago Onaindia
- J. Inazio Goikoetxea "Gaztelu"

Formaren analisisa

1. Kanpo-egitura

Bost ahapaldi ditu olerki honek eta hamairu silabakoak, lau lerroz osatutako ahapaldiak, laukoak.

Bertso nagusiak dira, zehazkiago esatearren lauko nagusiak:

-Puntu edo errimaz kontsonantea, ahapaldiz ahapaldi bereziak eta ahapaldi bakoitzaren barne ere bereziak izaki.

<p>1 minez ez ixiltasungana lana</p>	<p>2 ixiltasun lagun atxurra barne-lurra</p>
--	--

<p>3 azia etsai-barkatzia gora alaitasun -lora</p>	<p>4 Euskalerriari garbi iges abi</p>
--	---

5 bidez**kari**
bertsolari
bizi
kantari

4. eta 5. ahapaldietan "iges" eta "bizi" errimek apurtzen dute linealtasuna, formalki begiratuta behinik behin, baina apropos egiten duela dirudi, ahapaldi hauen lotura azpimarratzeagatik edo izan daitekeelarik.

Puntuei dagokienez aberatsak direla esan genezake, batik bat adierazgarritasun-zentzuan:

2.3 atx urra	3.1 maitasun- azia
2.4 barne- lurra	3.2 etsai-barkat zia

4.3. doiazela igesi	5.1. bidez kari
5.3. neramali bizi	5.2. bertsolari
	5.4. kantari

-Etenak edo Pausuak

Lehen aipatu dudan bezala, 13 silabako lerro, 7+ 6 zatituta dago tartean etena eginaz, beraz bi hemistikio eginaz, bata 7 silabakoa eta bestea 6 silabakoa.

Adibide gisara 2. ahapaldia:
 .Uxaintzak inguruko // gezur,
 Ixiltasun...!
 .Egia bear diat // artu nere lagun.
 .Ator, Egi, lepotik // zintzilizka
 atxurra,
 .Jorratzen asi adi // nere barne-lurra.

-Estrofa-mota

Hemen azaltzen den estrofa honek, badu zortziko txikiaren antza. Zortziko txikiak zortzi lerroko bertsoa dela esan

nahi du, errimak paretan joaten direlarik. Horrela: 7/6/7/6/7/6/...

Errima gabeko lerroak 7 silaba izaten ditu eta errimadunak 6.

-Diptongoak

Aranaren oharrei jarraiki, diptongoei dagokienez beheranzkoak egiten ditu, gure artean ohitura denez, dieresirik egin gabe.

1. ahapaldian naukak
Guazian
baitan
2. ahapaldian Uxaitzak
3. ahapaldian Eraintzak ene baitan
maitasun-azia
emaitzetan ederren,
etsai-barkatzia
bake-zugaitz azpian,
alaitasun-lora
4. ahapaldian gaitez
Gorrotua ta illuna
doiazela igesi
5. ahapaldian maitasun
Euskalerriko oroitza
oartu izan

Sinalefetan, Aranaren oharrei jarraiki, beheranzko diptongoei dagokien arabera egiten du. Baita hitzaren bokal-amaiera eta hurrengoaren bokal-hasiera berdina direnean ere. Diptongo goranzkorik ez du egiten.

Ez du, bestalde, sinalefarik egiten diptongoa goranzko gisakoa gerta daitekeen bokalen artean.

- 1.2. Iskanbila b**iz**ian
- 2.2. Egia behar diat
- 3.1. azia
- 3.2. etsai-barkatzia
- 3.4. azpian
- 4.2. biurtuz

Baina kasu batean diptongo goranzkoekin sinalefa egiten du. Adibidez, 2. ahapaldian (2.2.) "asiadi" neurriak eraginda.

-Aferesia

Silaben ezabaketa hitzaren hasieran gertatzen da:

Adibidez:

- 4.1. (e)Ta asi gaitez abesten
Euskalerritari
- 5.2. (e)Ta maitasun orretzek biur
bertsolari

2. Morfonsintaxi alderdia

Lehenbizi **izanlagunen** urritasuna aipatu eta kasu gehienetan hitz-elkarkeeta bidez agertzen direla aipatu behar da.

- 2.4. Barne-lurra
- 3.2. etsai-barkatzia
- 3.3. barne-baratzan
- 3.4. bake-zugaitz

Normalean, izenlagunak deskribapenetan erabiltzen dira. Epitetotzat jo genitzake: "iskanbila **bizian**", "bera bezin **garbi**", "oroitza neramala **bizi**"

Bestalde sustantiboak eta aditzak ugari dira; eta aditzak ekintza-adierazle direnez, halaber elementu denboralizatzaile eta identifikatzailea

diren neurrian, gizakotu eta pil-pildu egiten du olerkia.

Sustantiboak: Bakartasun, iskanbila, gogo, ixiltasun, lana, gezur, egia, lepo, atxurra, barne-**lurra**, azia, etsai-**barkatzia**, barne-**baratza**, bake-**-zugaitz**, alaitasun-**lora** gorrotua, iluna, baso, txori, maitasun, bidezkarri, bertsolari, oroitzia.

Bakartasun, ixiltasun, gezur, egia... zentzu abstraktua dutenak, beraz, subjektibismoarekin guztiz lotuta.

Aditzak:

a) **trinkoak:** naukak, ator, badiat, datorrela neramala, negola.

b) **perifrastikoak** : Behar diat artu, yorratzen asi adi, asi gaitez abesten, egin niñun, oartu izan nintzan,

d) **partizipio gerundialak:** miñez, kantari

e) **aditz nominalizatua:** lantzerik

Aginterazko formak eta **hika** azpimarragarriena, hala nola lehen ahapaldietan aditzak **orainaldian** paratuak dira, 5. ahapaldian **iraganaldian**.

Aditzat orainaldian eta **lehen pertsonan** agertzea, subjektibotasunaren adierazlea da; izan ere, poetaren sentimenduak adieraziko ditu olerkiak. Halaber, aginterazko formak erabiltzea eta hitz-elkarketaren jokuaz sortutako hitzak subjektibotasun eta "idealismo lirikoaren" ezaugarri izan daitezke.

Beti ere nabarmen **izenordainen** subjektibotasun-zama, hots:

1. ahapald.: Ba-diat **ene** baitan
irurontzat lana

2. ahapald.: Egia behar diat artu
nere lagun
yorratzen asi adi **ner**e
barne-lurra

3. ahapald.: Eraintzaz **ene** baitan
maitasun azia
Nere barne-baratzen,
datorrela gora

4. ahapald.: **Gure** gogo bihurtuz
bera bezin garbi
Gure basoetan ez txori
oiek abi

Edozein poematan aurki ditzakegun erritmo-mota bi aurkitzen ditugu: 1. Kanpo-erritmoa deritzona, neurriari, etenei eta hitzei dagokiena, alegia.

2. Barne-erritmoa deritzona, idazlearen sentimendu eta kezkei dagokiena. Erritmo-mota bi hauek elkarren osagarri suertatzen dira usu.

Monzonen idealismo eta errealismorako joerak oso argi ageri dira. Batetik ez da kausitzen gerra baten ondorioz herri garaitu baten mixeria gordina eta gorria; bestetik sentimenduen adierazpen garbia eta indartsuak, egiazkoak direna darakuski.

3. Baliabideak

-Harri durak

5.4. Oartu izan nintzan
behin...negola kantari...!

- Apostrofeak
 1.1. Bakartasun...!
 2.1. Ixiltasun...!
- Paralelismoak
 1.1. **Bakartasun..!** ...
 1.3. **Ator.**
 1.7. **Ator, Egi...**
 4.3. Doiazela igesi
 5.3. Neramala bizi
 5.4. Negola kantari
 5.1. Maitasun batek egin niñun bidez kari
 5.2. Ta maitasun orretzek biur bertsolari.
- Hitz-elkarketak
 2.4. Barne-lurra
 3.1. Maitasun azia
 3.2. Etsai-barkatzia
 3.4. Alaitasun-lora
- Kontrasteak
 .Gezur/Egia
 2.1. Uxaitzak inguruko **gezur,**
 Ixiltasun...!
 2.2. **Egia** behar diat artu nere lagun
 .Bakartasun/Iskanbila
 Ixiltasun/
 1.1. **Bakartasun...!** Aspaldi naukak
 ire miñez
 1.2. **Iskanbilla** bizian, gogo
 lantzerik ez
 1.3. Ator! Guazian biok
Ixiltasungana
 .Garbi/Iluna
 4.2. Gure gogo biurtuz bera bezin
garbi
 3.4. Bake-zugaitz **azpian,**
 alaitasun-lora
- .Lagun/Etsai
 2.2. Egia bear diat artu nere **lagun**
 3.2. Emaitzetan ederren, **etsai-**
 barkatzia
 . Gorrotoa/Maitasuna
 4.3. **Gorrotua** ta illuna doiazela
 igesi
 5.1. **Maitasun** batek egin niñun
 bidez kari
- Hiperbatona
 2.2. Egia bear diat artu nere lagun
 4.4. Gure basoetan ez txori oiek abi
 5.1. Maitasun batek egin niñun
 bidez kari
- Elipsia
 4.4. Gure basoetan ez txori oiek abi
 5.2. Ta maitasun orretzek biur
 bertsolari
- Aliterazioa
 Ohar musikalitate aldetik
 aliterazioen errepikak:
 4.2. **gure gogo biurtuz bera bezin**
garbi) /g/ eta /b/
- fonemen errepikak.
 /N/ sudurkariaren errepika: 5.4.
 Oartu izan nintzan bein... **negola**
 kantari...!
 Bokal eta kontsonanteen kopuruari
 begira: a eta i bokalak dira sarrien
 agertzen direnak. A-k argitasuna eta I
 bokalak iluntasuna adieraziko lukete.
 /A/→ 101 aldiz
 /E/→ 56 "
 /I/→ 66 "
 /O/→ 27 "
 /U/→ 29 "

Fonema batzuren erabilera nabarmentzen da:

.Leherkari ozenak: /B/ /D/ /G/ → 51
/B/ → 24
/D/ → 6
/G/ → 21

.Leherkari gorrak: /P/ /T/ /K/ → 44
/P/ → 3
/T/ → 26
/K/ → 15

.Frikariak: /X/ /S/ /Z/ → 35
/X/ → 3
/S/ → 16
/Z/ → 16

.Afrikatuak: /TX/ /TS/ /TZ/ → 17
/TX/ → 3
/TS/ → 2
/TZ/ → 12

Alderdi semantikoa

1. Gaia

Olerki honetan izenak berak ematen digu gaiaren berri, **Bakartasun...!** izeneko olerkia bakartasunaz mintzatuko zaigu.

Gaia aldetik esan oso erabilia izan dela olerkigintzan, subjektibismoaren eta sentimentuen ohiartzun-kutxatatzat joz, "topikoa" da.

Ez dugu ahaztu behar olerki hau **Urrundik** "Bake oroi" liburutik aterata dagoenik eta Euskal Herriarekiko penaz, herri-minaz egina dagoenik.

2. Barne-egitura

Zati bi bereizi behar ditugu:

1. Lehenengo ahapalditik 4. ahapaldiraino.
2. Azkenengo ahapaldia, bostgarrena, hain zuzen.

Zatiketa hau egin ondoren ahapaldiz ahapaldi aztertuko ditut:

- * 1 ahapaldia: Lehen hitza "Bakartasun" izateak olerkiaren zuzentasunaz oharterazten digu eta bestalde zertan darabilkion gogoia.
- * 2 ahapaldia: Bere kezken berri ematen dihardu. Ahapaldi honetan Monzon egizale agertzen zaigu: "Egia bear diat artu nere lagun (2.2) Ator, Egi..."
- * 3 ahapaldia: Bere barne gogoeten eta desiren eskakizunetan dihardu. "Eraintzak ene baitan maitasun-azia; Emaitzetan ederren, etsai-barkatzia. Nere barne-baratzan, datorrela gora Bake-zugaitz azpian, alaitasun-lora."
- * 4 ahapaldia: Aurreko hiru ahapaldietan lehen pertsona erabili badu, oraingo ahapaldian **lehen pertsona plurala** (gu) darabil eta bere bakartasunaren motiboa agertzen da, hots, Euskal Herria.
- * 5 ahapaldia: Azken ahapaldia izan bada ere, beronen oroitzapenean beste lauak idatzita daude. Zergatik? Lehenengo, iraganaldian ematen delako eta olerkariak berak dioenez azkenengo estrofan: Maitasun batek egin niñun bidezkarri 5.1. Oartu izan nintzan bein ... negola kantari..! 5.4.

Barrutik-kanporako jarioaz joritzen da olerkia, barne-gogoetak, kezkek iturri dituela, baina "intimismo" hau Euskal Herriko gogoetarekin topo egitean itzaltzen da, hainbat euskaldunen une latzak gogorazten bait dugu, dimentsio intimisten ikuspegi hertsia etenez.

3. Sinbologia

Indar handiko sentimentuak adieraziarren, baretsu eta apal egiten du. Darabiltzen hitzak borobilak dira: **Bakartasun, Ixiltasun, Egia**, absolutua irudikatzen dutelarik. Bestalde, hitz-elkarteen bidez sorturiko hitz esanguratsuak daude, beste erritmo-mota bat ezartzen dutela, noski, biziago eta azkarrago, egoerari dagokion mugatasuna emanez.

Lehenengo ahapaldian argiro uzten du olerkariak egoeraren menpe dagoela, Bakartasuna, Ixiltasuna eta bera (olerkaria) maila berean, bata besteaz parekatzen dituela.

Berton azaltzen diren bakartasuna eta ixiltasunaren sinbologiaz hitz bitan arituko naiz segidan:

Bakartasuna: Pakea, lasaitasunaren sinboloa da.

Ixiltasuna: Egiaren sinboloa dirudi.

Bake-zugaitz aldiz gure herrian Gernikako Arbolararen sinbolotzat har dezakegu.

Monzonen olerkian argitasun eta zuzentasuna gizatasun handiz kausitzen da, inguruko gezurrak

uxatuz, "gorrotua eta illuna doiazela igesi", kontrajarriz "Egia bear diat artu nere lagun", "etsai-barkatzia", okerrik gabe esan argitasun eta zuzentasunaren kanta dela orohar olerki osoa.

Euskal Herriaren idealizazioak, etsipena eta tristura gaindieraziz, abestera bultzatzen du Monzon.

Ta asi gaitz abesten Euskalerría´ri
(4.1.)

Ta maitasun orretzek biur bertsolari
(5.2.)

Eritziak

Pierre Lafitte jaunak "La langue basque de 1939 a 1947" *Eusko-Jakintzan* aipatzen digu autore hau. Horra zati bat:

"Quant á Monzon, c'est une oeuvre aristocratique également qu'il a composée à Mexico, en 1945, sous le titre Urrundik. Il sent "peuple" certes. Il n'est pas coupé d'avec la foule de nos baserritarrak. Mais c'est un artiste; il veut suggérer, plutôt que dire; il écrit en filigrane; il affectionne l'indéfini dans les noms et les verbes, supprimant l'article ou les suffixes du participe avec une désinvolture de poète souverain. Il faut prendre son temps pour le lire et le gûter: mais, avec lui, prendre son temps, ce n'est pas le perdre: car sa maieutique est enrichissante pour l'esprit comme pour le coeur, par ses rappels, ses allusions, sa lumière et son harmonie."

J.M. de Leizaolak *Monzon: Hitzak eta idazkiak* 4. tomoan honela dio:

"Monzon se ha separado, pues, enteramente de Lizardi en materia de métrica. El maestro de todos los poetas de la actual generación había dejado de lado la música, al ahaire zahar. Monzon vuelve a él, pero no para encerrarse en los cauces del uso popular, sino para librar el tesoro de las danzas y de los cantos de la lírica vasca. Resulta con ello un innovador."

Galeuzkan, hauxe aurkitzen dugu:

"El señor Monzon-Olaso, uno de los espíritus más finos y mejor cultivados de la actual generación vasca ha encontrado, en medio de sus ocupaciones de índole política, ratos de sosiego, remansos de soledad y de silencio, para pensar más íntimamente, a solas con su sentir, en la patria, en la tierra y en las gentes que quedaron allí.

Le duele, le duele al autor de "Urrundik" la ausencia tan prolongada. Y ese dolor de ausencia, esa nostalgia que en la soledad se acaricia triste y dulcemente con el recuerdo emocionado de paisajes, de amigos, de iglesias, calles, de casas, de verdes del sueño y de grises del cielo, se ha fijado en jugosas poesías".

Josu Landak *Gerraondoko poesiaren historian*:

"Herri-literaturaren ikerle eta maitale porrokatua izaki, genero horrek kutsatua ageri zaitu haren obra poetikoa: olerki mordo bat kantatuak izateko egiten ditu, eta musika eta guzti azaltzen ditu egileak. Baina Monzon gizon kulta ere bazen eta herri-egiturak eta -gaiak lantzen dituen arren batez ere lexikoari dagokionez

gizon ikasiaren zantzua antzematen da haren poesietan. Bestalde, eta datu anekdotiko huts bezala besterik ez bada ere, esan beharra dago Monzoni zor zaizkiola -eta ez beste inori- euskal poesian idatziriko lehenengo bertso libreak (neurritz bai, errimaz ez baina)"

Argia aldizkariak J. Maria Leizaolaren hitzak jasotzen ditu:

"Neretzat, bere lanaren merezimendu garrantzitsuena ez datza poetika teknikan, Monzonek ematen duen bere izpiritu egoeraren aitormenean baizik, gure herriak nozituriko astindu gogorretan, XX. mendearen lehen erdikadaren azkenetan suertatutako gertakarien kausaz. Orduan dator bere ahotsa beste poetenekin tartekatzerara, eta beraiekin batera, gure herriaren ahots bihurtzen da"

Balorazio pertsonala

Telesforo gerrak sortutako poeta dugu. Euskal poesiaren historian kasurik bitxienetakoa dugu Telesforo Monzonena: gerraurrean ministroa baina kulturaz betidanik arduratua, gerraondoko atzerriratzeak bultzatu zuen olerkiak idaztera.

"Urrundik" liburuan azaltzen diren lanak herriminak eta nostalgiak jotako lanak ditugu. Oroimenik mikatzenak eragindako produkzioa.

Poemak latzak badira ere, ezin esan inola ere gorrotozkoak direnik. Dudarik gabe, samurregiak Euskal Herria pairatzen ari zen miseriarako.

Monzonen **Bakartasun...!** olerkia aztertu eta landu ondoren, eritzi pertsonala deritzon horri eutsiko diot segidan. Olerkariak kasu honetan, beste hainbatetan bezalatsu, egiten dituen olerkiak abestuak izateko direla erakusten digu, horrela, erraz uler daiteke olerkiaren arintasuna eta zuzentasuna, edozein abestik behar duen freskuraren osagarri bihurtzen direlarik.

Baikorra dugu Monzon, egoera latza izan arren, gerraostea hain zuzen, baina bere egiazaletasunak, herri-minak (abertzaletasunak), fedea itxaropentsu izaten laguntzen diote. Baikortasun honen adierazle, kontrakoan edo

antitesien erabilpena, egia-gezur, lagun-etsai, garbi-ilun, ixiltasun-iskanbila, gorroto-maitasun... beti positibotasunaren aldeko apustuari irmoki ekinez.

Gizon ikasi baten bertso papera dela **Bakartasun** olerkia esaten badugu, ez gabilta oker. Alde batetik neurri eta errimak bitxiak badira ere, badute formalismoa; bestalde gizon ikasia, jantzia da Monzon, euskara landua eta kultoa darabilela.

Garaian garaiko egoeraren morroi suertatu zitzaigun Monzon, erbestearen eta Euskal Herriak bizi zuen giro politikoarena hain zuzen. Horrexek azal dezake haren olerkien ezezagutza.

Bibliografia

AMENABAR, J.; *Euskal poesia kultoaren bilduma 1880-1963*, Elkar, Donostia, 1983.

AUÑAMENDI, *Literatura IV*.

LANDA, J.; *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK, Donostia, 1983.

LAFITTE, P.; *Eusko Jakintza*, 1947.

MONZON, Telesforo; *Hitzak eta Idazkiak*, Jaizkibel, Donostia.

ONAINDIA, S.; *Euskal Literatura V*.

ORMAETXEA, N.; *Eusko Jakintza* 1947.

ZABALA, E.; *Euskal Alfabetatzeko Literatura*, Pax, Lazkao, 1981.

ARGIA, aldizkaria.